

“Euskara ibiltaria” erakusketak euskararen aldakortasuna erakutsiko du San Telmo Museoan azaroaren 29tik aurrera

Euskaltzaindiak eta San Telmo Museoa, Laboral Kutxaren babesarekin, *Euskara ibiltaria* erakusketa aurkeztu dute San Telmo Museoko Laborategian. Azaroaren 29tik otsailaren 23ra egongo da zabalik, doako sarrerarekin.

Euskara ibiltaria erakusketaren abiapuntua Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a da, eta argitalpenak bezala, helburua euskararen aldakortasuna eta aberastasuna erakustea du helburu (lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia). Hala, Euskaltzaindiak gizarteari itzuli egin nahi dio atlasa egiteko euskal gizartearengandik jasotako jakituria.

Horretarako, erakusketa bost atal nagusitan dago banatua -Tokiak, Materialak, Argia eta soinua, Natura, eta Bizitza-, eta atal horietako bakoitzean atlaseko mapen hautaketa bat erakusten da, bisitariari aldaera horiek era bisualean erakutsiko dizkiona. Horrez gain, erakusketak jokoak, animazioak eta entzungaien gisako tresnak ere erabiltzen ditu herri hizkeren aberastasun hori erakusteko.

Zentzumenek ere presentzia duten erakusketa da: ikusmenaz gain, entzun egin daitekeena, uki daitekeena, dastatzekoa eta, azkenik, usaintzekoa.

Erakusketa honetan bisitariak, euskararen aberastasunaz ohartzeaz gain, hizkuntza-atlas bat zer den ikusteko aukera izango du, eta horren bidez, garai bateko (XIX. eta XX. mendeak) bizimodua, gizartea eta ohiturak ezagutzekoa.

Halaber, erakusketaren mamia *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a den neurrian, *Euskara ibiltari*aren helburua ere bada egitasmoaren historia gizarteratzea eta hizkuntza-atlasa lantzeko erabilitako metodologia, materialak eta bestelakoak ezagutzera ematea.

*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a oinarri

*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) euskararen aldakortasunaren berri ematen duen argitalpena da, Euskaltzaindiak argitaratzen duena eta dagoeneko hamar liburuki dituena. Proiektua 80ko hamarkadan abiatu zuten ikerketa baten bidez. Euskal Herriko 145 inkestapuntu aukeratu zituzten (Arabako herri bakarra, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36, Nafarroako Foru Komunitatea: 27 herri, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan

12), 319 berriemaile eta 2.857 galdera, 1987 eta 1992 artean, 5.000 ordutik gora elkarrizketaren bidez grabatzeko.

Atlasaren mamia gizarteratzeko erakusketa hau 2015ean antolatu zen lehen aldiz Beasainen (Portugaleten, Bilbon, Iruñean eta Baionan ere egon zen). Lau urteko ibilbidearen ondoren, 2019an, Euskaltzaindia bere mendeurrena ospatzen ari den urtean, *Euskara Ibiltaria* eraberritu du (baliabide berriak txertatuz), eta aurpegi berria 2019ko martxoa eta ekaina bitartean erakutsi zuen lehen aldiz Bilboko Euskal Museoan. San Telmo Museora etorri aurretik, Bermeon ere egon da ikusgai.

Erakusketa birtuala

Erakusketa, bere osotasunean, Euskaltzaindiaren webgunean ere ikus daiteke, honako loturan: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskara-ibiltaria>

Honela, Euskara ibiltaria orrian erakusketa fisikoaren elementu berdinak islatzen dira:

1. Aurkezpenaren atala: erakusketaren azalpen nagusia erakusten da bertan. Azalpenaren audioak ere entzun daitezke, lau hizkuntzatan: euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa.
2. Jolas interaktiboen atala: lau dira jolas interaktiboak:
 - Euskal ahotsak
 - Euskararen unibertsoa
 - Hizkuntzaren aberastasuna
 - Osatu atalez atal
3. Erakusketaren eremuak eta bertan agertzen diren panelak.
 - Erakusketako panel guztiak ikus daitezke, eremuka banatuta.
 - Eremu bakoitzeko audioak ere entzun daitezke.

La exposición “Euskara ibiltaria” mostrará en San Telmo Museoa las variantes del euskera, a partir del 29 de noviembre

Euskaltzaindia y San Telmo Museoa, con el patrocinio de Caja Laboral, presentan la exposición *Euskara ibiltaria* en el Laboratorio del museo. Se podrá visitar hasta el 23 de febrero, con entrada gratuita.

El punto de partida de *Euskara ibiltaria* es el *Atlas Lingüístico de Euskal Herria*, de Euskaltzaindia, y al igual que esta publicación, la exposición tiene como objetivo mostrar las variantes y la riqueza del euskera (léxico, morfología y sintaxis). Con ella, además, Euskaltzaindia busca devolver a la sociedad la aportación que ha realizado para la elaboración del atlas.

La exposición se divide en cinco secciones -Lugares, Materiales, Luz y sonido, Naturaleza, y Vida- y en cada una de ellas se presenta una selección de los mapas del atlas, que incluye variantes dialectales que se producen en diversas palabras relacionadas con alguno de estos temas, de una manera visual. Además de este contenido, la exposición propone juegos, animaciones y otros recursos que sirven para evidenciar la riqueza de los dialectos populares, entre ellos algunos que ponen en juego los cinco sentidos.

Quien visite la exposición podrá comprobar, aparte de la riqueza de la lengua, qué es un atlas lingüístico, y a través de este atlas conocer el modo de vida, la sociedad y las costumbres de una época (siglos XIX y XX). Asimismo, puesto que el elemento central es el *Atlas Lingüístico de Euskal Herria*, *Euskara ibiltaria* también busca dar a conocer la metodología y los materiales que se han empleado en su elaboración.

Atlas Lingüístico de Euskal Herria

El *Atlas Lingüístico de Euskal Herria* es una publicación de Euskaltzaindia que recoge las variantes de los dialectos y que cuenta actualmente con diez tomos. El proyecto se puso en marcha en la década de 1980, mediante una investigación. Se escogieron 145 puntos para encuestas (1 localidad en Araba, 36 tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa, 27 en Nafarroa, 15 en Lapurdi, 18 en Nafarroa Beherea y 12 en Zuberoa), 319 personas a las que entrevistar y 2.875 preguntas. Así se grabaron, entre los años 1987 y 1992, más de 5.000 horas de entrevistas.

Para difundir el contenido principal del atlas se organizó en 2015 una exposición en Beasain, que posteriormente también se pudo visitar en Portugalete, Bilbao, Iruñea y Baiona. Cuatro años más tarde, en este 2019, y coincidiendo con el centenario de Euskaltzaindia, la exposición se ha renovado, se han incorporado nuevos recursos y se ha mostrado en Bilbao y en Bermeo antes de llegar a San Telmo Museoa.

La exposición virtual

Además de la exposición instalada en el Museo San Telmo, la muestra se podrá visitar de forma virtual en la página web de Euskaltzaindia, accediendo a esta dirección: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskara-ibiltaria>

La exposición virtual reproduce los mismos elementos que la muestra física:

1. Presentación general de la exposición. También se pueden escuchar audios en cuatro idiomas: euskera, español, francés e inglés.
2. Sección de juegos interactivos (son cuatro):
 - Voces euskaldunes.
 - El universo del euskera.
 - La riqueza del idioma.
 - Completa parte por parte.
3. Los ámbitos de la exposición y los paneles que se muestran en la misma:
 - Se pueden ver todos los paneles que aparecen en la muestra física, distribuidos en cinco ámbitos.
 - También se pueden escuchar los audios correspondientes a cada ámbito.

JARDUERAK / ACTIVIDADES

HITZEZ HITZ, AHOZ AHO San Telmo Museoa

Azaroaren 29tik abenduaren 4ra bitarte / Del 29 de noviembre al 4 de diciembre

Euskararen egunaren harira jarduera ezberdinak egingo dira museoan / Actividades relacionadas con el Día del Euskera en el museo.

Euskaraz / En euskera

Sarrera librea lekuak bete arte (Mintzodromoa+Mintzanet ezik, izen-ematearekin) / Entrada libre hasta completar aforo (excepto Mintzodromoa+Mintzanet, con inscripción)

Antolatzaileak / Organizan: Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua, San Telmo Museoa, Bagera Elkartea, Mintzanet

Azaroak 30 de noviembre

Solasaldia / Encuentro: *Goazen!*; Lorea Intxausti, Xanti Korkostegi, Markel Sainz, Xabi Zabaleta
Eliza - Iglesia / 18:00

Kontzertua / Concierto: Ainhoa Larrañaga

Iker Lauroba (kontrabaxua, gitarra), Amaia Miranda (gitarra), Garazi Esnaola (pianoa) eta Haritz Lauroba (bateria).

Eliza - Iglesia / 21:00

Abenduak 1 de diciembre

Hileko obra / Obra del mes: *Ideiatik zinema-aretora*, Telmo Esnal

Ekitaldi aretoa - Salón de actos / 12:00

Ant. / Org.: STMLE / AAMST

Proiektzioa eta solasaldia / Proyección y coloquio: *Erraiak* (2019)

Irrintziari buruzko dokumentala emango da eta ondoren solasaldia egongo da Ekain Martinez de Lizarduy Stürtze zuzendariarekin. / Tras la proyección del documental sobre el irrintzi, coloquio con su director, Ekain Martínez de Lizarduy Stürtze.

Ekitaldi aretoa - Salón de actos / 17:30

Proiektzioa eta solasaldia / Proyección y coloquio: *Margolaria* (2018)

Solasaldi musikatua Mikel Urdangarinekin / Coloquio musical con Mikel Urdangarin

Ekitaldi aretoa - Salón de actos / 19:00

Abenduak 3 de diciembre

Topaketa / Encuentro: *Mintzodromoa + Mintzanet*

Helduen artean, bereziki euskaldunberrien artean, euskaraz aritzeko saioak, STMn unean jorratzen ari den gaien inguruan. / Sesiones de práctica en euskara para público adulto, especialmente *euskaldunberri*, sobre temas que propone el museo, en consonancia con los que se están trabajando en STM.

Parte hartzeko: mintzalaguna@bagera.eus

Eliza - Iglesia / 10:00 + 17:00

Ekintza sinbolikoa / Acción simbólica: *Euskaraldia*

Euskaraldiaren aldeko ekintza sinbolikoa, bizipen eta desirak harilkatuko dituen / Acción simbólica a favor de Euskaraldia, que enlazará vivencias y deseos.

Zuloaga plaza / 11:00 (eguraldi txarrarekin, museoko klaustroan)

Bertso saioa / Bertsos

Bertsoaren harria, Bilintx; Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio, Koldo Izagirre

Eliza - Iglesia / 19:00

Abenduak 4 de diciembre

Mahai-ingurua / Mesa redonda:

Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak; Olatz Altuna, Natxo Sorolla

Olatz Altuna (Soziologia Klusterreko kidea / Miembro del Cluster de Sociología), Natxo Sorolla (Sozilinguista. Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslea / Sociolingüista. Profesor de la Universidad Rovira i Virgili).

Ekitaldi aretoan – Salón de actos / 18:30

KONGRESUA / CONGRESO

Abenduak 11-13

Joxe Azurmendi: *Euskal pentsamenduaren ur-jauzia*.

Joxe Azurmendik landu dituen esparruetako 50 aritu inguruk (adituak eta hasiberriak) hartuko dute parte kongresuan Azurmendik ekarritako urek martxan jarri dizkieten ideiak partekatzeko.

Más de 50 personas expertas y principiantes en los ámbitos que ha estudiado Joxe Azurmendi participarán en este congreso cuyo objetivo es compartir las ideas que suscitaron en ellas las reflexiones de Azurmendi.

Izen-ematea eta informazio gehiago: www.joxeazurmendikatedra.eus

Antolatzaileak / Organizan: UPV/EHU, JAKIN

Laguntzailea / Colabora: STM

BERTSO EMANALDIA / SESIÓN DE BERTSOS

Urtarrilak 31 de enero

Neretik; Andoni Egaña, Jon Ostolaza

Andoni Egaña bertso-paperak kantatuko ditu, bere bizitzari loturikoak, bertso molde honek duen balioa aldarrikatzeko. / Andoni Egaña cantará bertsos ya escritos por él, sobre su vida, reivindicando, de alguna manera el valor de esta modalidad de bertsos.

Euskara / 19:00 / Sarrera librea lekuak bete arte - Entrada libre hasta completar aforo

FAMILIA TAILERRAK / TALLERES FAMILIARES

Urtarrilak 11 de enero

Hitzak irudi, Maushaus

Hitzez osatutako mural kolektibo bat egingo dugu, ozen irakurritako poema bat adi entzutetik abiatuta. / Crearemos un mural colectivo con palabras a partir de partir de la escucha de un poema leído en voz alta.

17:00 | 6-12 | Euskara | Doan / Gratis

Izen-ematea / Inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561 (astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00)

Otsailak 1 de febrero

Hitzaren jiran-biran, Pello Añorga

Jarduera honek hitza du ardatz, oinarri, arnas eta giltzarri; aho korapiloak, asmakizunak, konjuratzeko formulak eta beste, umorez zipriztinduta. / El eje, la base, el aire y la clave de esta actividad es la palabra; trabalenguas, acertijos, fórmulas de conjuro, y más, con mucho humor.

17:00 | 6-8 | Euskara | Doan / Gratis

Izen-ematea | Inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943 481561 (astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00)

Otsailak 8 de febrero

Abecedario titirijario, Juan Kruz Igerabide

Alfabetoko letren formekin eta soinuarekin sormena lantzen duen tailerra. / Taller que trabaja la creatividad con las formas y los sonidos de las letras del abecedario.

17:00 | 6-10 | Euskara | Doan / Gratis

Izen-ematea | Inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943 481 561 (astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00)

abere ba

Otsailak 2 de febrero

Hamaika abere kapikua, Bigara

Otsailaren 2tik aurrera, bi astez, *Hamaika abere kapikua* jolasa modu autonomoan egiteko aukera izango da. Hamaika aberek euskararen hiztegitik ihes egin dute eta museoan zehar ezkutatu dira. Erakusketa iraunkorrean integratuko den jolas proposamena da, familientzat eta bisitariarentzat orohar.

A partir del 2 de febrero, durante dos semanas se podrá jugar, de forma autónoma, a *Hamaika abere kapikua* en San Telmo. Se trata de una propuesta que se integra en la exposición permanente.

Museoko sarrerarekin -Con la entrada del museo/ Euskaraz

Otsailak 12 de febrero

Abere ba? Aber ba, Bigara

Palindromo eta hitz-jolasen hitzaldi-tailerra. Helduei zuzendua.

Abere ba? Aber ba, izenburua, ez da esaldirik zuzenena izango, Euskaltzaindiaren hiztegiak hitzak onartzen dituen arren. Baina jostaria dela iruditzen zaigu.

Charla-taller sobre palíndromos y juegos de palabras, dirigido a público adulto.

18.30 / Euskaraz / Doan-Gratis

Izen-ematea | Inscripción: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561 (astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00)

ESKOLENTZAKO BISITAK / VISITAS PARA ESCOLARES

DBH 3 eta 4 eta Batxilergoko ikasleentzako bisitak erreserbatzeko aukera egongo da.

Se podrán reservar visitas para estudiantes de 3º y 4º de ESO y Bachiller.

Izena emateko / Inscripciones: stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561 (astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00).